



DEUSTUKO IKASTOLA
**GURASO
ELKARTEA**

**Guraso Elkartearen Ohiko
Batzar Orokorra**
2020-2021 Ikasturtea.

**JUNTAKO KUDEAKETA
TXOSTENA.**



Aurkibidea:

- 1.** *Eskolaz Kanpoko Batzordea*
- 2.** *Parte-hartze Batzordea*
- 3.** *Komunikazio Batzordea*
- 4.** *Jantoki Batzordea*



Guraso Elkartearen Ohiko Batzar Orokorra 2020-12-17

1. Eskolaz Kanpoko

Batzordea.

19-20 / 20-21 ikasturteak.

Balorazioa eta

Erronkak:



Guraso Elkarteen Ohiko Batzar Orokorra 2020-12-17

**1. Eskolaz Kanpoko
Batzordea.**
19-20 / 20-21 ikasturteak.

Balorazioa:

- Kudeaketaren egitura aldatu da [ek-koordinazioa@deustukoikastola.eus]
- Balorazioa positiboa eta berankortasun txikia.
- **2. Hiruhilabeteko erdian konfinamendua: Helburu nagusia bai lortu dugu:** Haurrak balore batzuetan oinarrituta garatzea, Euskal kulturaren barruan, beti ere aniztasuna errespetatuz.
- **3. Hiruhilabeteko erdiko ordainketa Guraso Elkartek barneratu zuen (%20).**
- Bolondresen esfortsua. Guztion ardura da:

• → *Honi aurre egiteko behar zaitugu!*



Erronkak:

- Eskolaz kanpokoak urtarrilaren 18tik aurrera ireki ahal izatea.
- Oreka lortzea osasun-egoeraren eta jardueren garapen egokiaren artean.
- **Helburu nagusia lortzea:** Haurrak balore batzuetan oinarrituta garatzea, Euskal kulturaren barruan, beti ere aniztasuna errespetatuz, **eta jarduera bakoitzaren helburu espezifikoak.**
- Elkarbizitza eta Euskara Batzordeekin elkar-lana egitea.
- Familien inplikazio handiagoa lortzea jardueretan: kudeaketan, partaidetza-erantzukizunean...

• → Honi aurre egiteko behar zaitugu!



Guraso Elkarteen Ohiko Batzar Orokorra 2020-12-17

2. Parte-Hartze

Batzordea.

19-20 / 20-21 ikasturteak.

Balorazioa eta

Erronkak:



Balorazioa:

- **Delegatuen Sarea: bilera bat egin zen: Azarokoa.** Beste bi zeuden antolatuta, baina Koronabirusa zela eta, ezin izan genituen gauzatu.
- **Gabonetako loteria saldu zen:** Deustuko hiru dendatan eta mahaitxoan. Dena Lh4ko familiei esker antolatu zen. Maisu Angel eta Andereño Mari Joseri esker salmenta oso ona izan zen.
- **Aste Kulturala eta Mendi-Martxa:** ez genituen egin ezta proposatu ere.
- **Euskara Batzordea bultzatu eta indartzea:** familientzako euskara tailerren inkesta bat egin genuen, tailer bat egiteko asmoz. Ezin izan genuen burutu, baina 2020ko azaroan egin dugu.
- **Delegatu Saretik informazioa bidaltzeko sistema Komunikazio Batzordearekin batera landu genuen, sistema berri bat sortuz.** Sistema hori Guraso Elkartearen webgune berriarekin lotuta dago.



Erronkak:

- **Delegatu Sarearen bilerak:** bai ala bai egin. Aurrez aurre egin badaitezke, hobe.
- **Planifikatutako jarduerak laguntzen jarraitzea:** *Gabonetako loteria, Aste Kulturala eta Mendi Martxa.* Egoeraren arabera egokitu.
- **Parte hartzea edo beste jarduera batzuk abiaraztea:** Euskaraldia, Euskara Tailerrak, Familientzako Gai ezberdinetako saioak (Elkarbizitza, Sexu Hezkuntza, Kontsumoa...)
- **Partaidetza-espazioen ezagutza indartu eta elkar konektatu:** Delegatu Sarea, Guraso Elkarteko Batzordeak, Ikastolako Kontseilua, etab., familien partehartzea sustatzeko helburuarekin.
- **Pertsona berriak erakarri barne mailako funtsioetan laguntzeko:** Idazkaritza, Komunikazioa eta beste batzordeetara.



3. Komunikazio

Batzordea.

19-20 / 20-21 ikasturteak.

Balorazioa eta

Erronkak:



Balorazioa:

- Guraso Elkarteko webgunea berritu da, aurreko bertsioak ez zituen hobekuntzak eta funtzionaltasunak ezarriz.
- Aurreko urteetan bezala, HH2ko familiei gelako laguntzailearen gaiaren berri eman zaie. Komunikazio Batzordeak kuoten kobrantza kudeatu du.
- Parte-hartze Batzordearekin lankidetzan eta webgune berria oinarri hartuta, familiei informazioa bidaltzeko sistema berri bat garatu da.
- Guraso Elkartearen irudi-sistema berria sendotu egin da.



Erronkak:

- Webgune berria mantentzen eta kudeatzen jarraitzea.
- Familiei informazioa bidaltzeko eta komunikatzeko sistema berria finkatzea.
- Guraso Elkarteko gainerako batzordeekin lankidetzan aritzeko joera sendotzea.
- Ikastolaren irudi berriaren garapenari berrekitea.



4. Jantoki

Batzordea.

19-20 / 20-21 ikasturteak.

Balorazioa eta

Erronkak:



Balorazioa:

- **Azpiegitura arazo handiak izan ditugu.** Bilboko Udaleko Sanidadeko ikuskaritzatik konponketa batzuk egitea eskatu ziguten 2019ko udazkenean zerbitzua bertan behera uztearen mehatxupean.
- **Azpiegituren konponketa izateko eta bide batez kudeaketa modelo bat lortzeko Eusko Jaurlaritzari hiru ardatzetan (*instalakuntzak, bertoko janari osasuntsua eta elkarbizitza*) egokitutako proiektua proposatu zitzaion otsailean, Eusko Jaurlaritzak ireki berri duen kogestio modeloen aukeran.**
- **Eusko Jaurlaritzarekin akordio bideratuta zegoenean Covid-19a etorri zen eta dena bertan behera gelditu zen.**
- **Eusko Jaurlaritzako ordezkari berriekin harremana izan dugu berriz ere.** Badirudi konponketa larrienak udan egiten nahi dituztela. Kudeaketa proiektuari ez diote oraindik erantzunik eman.



Balorazioa:

- **Biga eta Ehige-rekin bildu gara baita ere gure egoera larria azaltzeko eta 2020ko Otsailean aurkeztu genuen proiektua martxan jartzeko ideia helarazi diegu.** Gure egoera berdinean dauden beste eskola biek (Alzaga Ikastola eta Larrabetzuko eskola) batzeko ideia daukagu Eusko Jaurlaritzari gure egoeraren berri emateko.
- **COVIDak egoera ekonomiko larrian sartu du gure jantoki modeloa:** ikasle erabiltzailearen kopurua nabarmen jaitsi da (300 ume gutxiago) eta gastuak berdin mantendu dira (monitore kopuru berdina). Nahiz eta kuota igo hileroko **20.000€-ko defizitarekin** aurkitzen gara momentu hauetan.
- **Jangelako mahaiak eta bankuak aldatu ditugu ikuskariak planteatutako berrikuntza batzuekin hasteko.**



Erronkak:

- Zuzendaritzarekin eta Ikastolarekin harremana sendotzen ari gara: jantokia eskola proiektuan sartu daitekeela sinisten dugulako.
- Espazioen, elkarbizitzaren, komunikazio eta koordinazioaren kudeaketa eta antolakuntza hobetzen eta lantzen jarraitzeko koordinatzaile berri baten figura gehitu da.
- Patioen dinamizazioan Elkarbizitza Batzordearekin bat lanean ari gara.
- Jantokiko gaiak Elkarbizitzarako Behatokian lantzen jarraitzen dugu.
- Eusko Jaurlaritzak gure jantokirekiko duen ardura aintzat hartzea eta guk proposatutako eredu eta proiektua martxan jartzeko laguntza ematea.